

## Aurkezpena

---

Krisiak eta krisiak. Prentsa idatziak, telebista kateek, jendeak kalean eta etxean mintzagai bera darabilte, oro har eta 2009 urtetik: ekonomiaren egoera, lan produktibitatearen jaitsiera eta, ondorioz, langabeziaren igoera... Eragozpen handia, zalantzarik gabe, aspalditik datorrena eta, antza denez, izaki bizi eta igar-le batzuen arabera, epe motzera konponduko ez dena.

Kultura, bestela ezin zitekeen eta, egoerak astindua aurkitzen da. Kontuan izan beharra dago aurrekontuen orduan senide pobrea deitu ohi zaiola: hainbat eratako dirulaguntzak edo, besterik gabe, gizarteari begira beharrezkoak diren proiektuen aldeko apustua. Gainera, kulturak hartzen duen sorta zabalean herri kultura sail marginala da eta, ildo horretatik, tradizioak ibileraren amaiera puntua baldin badira, ohartuko gara baldintza hauetan lan egiten saiatzea gero eta zaila-go gertatzen dela, ia ezinezkoa: ikerketaren, azterketa analitikoaren, oinarriko lanaren alorrean mugitzen gara, Folklorearen (tradizio multzoa ikertu eta gauza-tzearen diziplina) mundua bermatzen dugula.

Hala eta guztiz... egoera zailak, ahal den neurrian bederen, alde batera uzteko asmo deliberatuaz, Folklore Sailak, zailtasunak zailtasun, dagozkigun gaiak –eta asko dira horiek– bultzatzen jarraitzen du. Egitekoak diren lan guztiak fabo-ratu eta gorestea eta, jakina, zorrotasuna sortzea hitzarturiko jardueretan.

Sailak gauzaturiko Jardunaldiei esker, zeinetara dagozkien gaietan aditua den jendea gonbidatzen den, aurkezturiko materialei esker, baita beste pertsona batzuen lan eskuzabalarari esker ere, *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore* agerka-riaren ale berri hau eskaini ahal dugu.

Kasu honetan, bi bloketan bereizi da alea, eta pertsonalki eta aginduz hartu-riko lanetatik hasten da gidoia. Hala, “Ikerlanak” sailean, Mikel Aranburu kolabo-ratzaile ezagunaren artikuluekin topo egiten dugu. “El txistu vasco, testimonio de ingenio” artikuluan, gure geografian zehar tresna horrek izan dituen erabilera uneetako batzuk aipatzen dira laburki, bata bestearen ondoren. Haren historia, talde desberdinak, soinuaren bilakaera edo txistu jotzaile ospetsuenetako batzuk dira orri hauetan zehar agertzen den ibilera labur baina bizi honen osagaiak.

Ondoren, Kepa Fernandez de Larrinoa antropologoak “Razón y crítica del concepto ‘patrimonio cultural’” lana aurkezten digu. Ondare (Kultural Material, Kultural Immaterial edo Natural) elementu guztiei esanahia eta zentzua emateak halako lekuan kokatzen gaitu non mantendu eta defendatzen dituen komunitateak kontuan hartu eta babestu beharreko elementu guztiak begizta ditzakegun.

Dantzari dagokionez, laguntza bizia izan du ondare horrek gure Joxemiel Bidador zenduren bizitza laburrean. Praktika, *dantzaria* zen aldetik; teoria, lanei dagokiena, horien artean *Dantzaren erreforma Euskal Herrian* nabarmentzen delarik.

Gutziz ustekabeen harrapatu gintuen haren heriotzaren aurretik artikulua bat ondu zuen: “Cuestiones infantiles por Todos los Santos en la cuenca de Pamplona: Los Txinurris”. Bertan, argi eta garbi ezezagunak zaizkigun irudikapenak aipatzen dira banan-banan, udazkenean eta, bere bilakaeraren kointzidentzia negoziatiboz, era masiboan oraintsuko egunak arte gauzatu direnak.

Ander Ros hizkuntzalariaren “Precedente histórico-trágico del lanzamiento de palanca en el Valle Medio del Nervión” dugu azken artikulua. Denboran atzera eramaten gaitu, kirol aski ezezagun baten hasierara, zeinak lanabes gisa erabilia izan zen, are nazioartekoan, gure XX. mendeko historiaren une gutziz zehatz batean.

Bigarren atalak “Musika Folk, musika tradizionala eta folklorea-Música folk, música tradicional y folclore” Jardunaldira garamatza, Basaurin 2009ko apirilaren 25en egin zen hartara. Bertan, goizean zehar eta arratsaldeko parte batean, musika munduko hainbat adituren ekarpenak entzun ahal izan genituen.

Aurkezturiko txosten eta komunikazioez gainera, hainbat xedetan erabili beharreko musikaren bateratasuna eta desadostasuna gaiari buruzko mahai inguru bat izan genuen. Bertan, musika tradizionalari buruz, herri eta folk musikari buruz ikuspuntu desberdinak dituzten hainbat pertsona ezagun bildu ziren: Jose Ignazio Ansorena, Juan Mari Beltran, Gontzal Mendibil, Aingeru Berguices, Iñigo Aguerri (Miel Otxin Folk Taldea) eta Xabier Valle. Solaskideak gutziz polemikatik kanpoko ikuspegiak erabiliz, hizkera errazean mintzatu ziren eta, era laburrean, beren eguneroko zereginaren jarraibide eta helburuak markatu zituzten.

Jaso diren txostenen artikulua atal askotarikoak dira, baita bat datozen atalekoak ere. Hala, Jaume Ayats-ek “Las canciones ‘olvidadas’ en los cancioneros de Catalunya: cómo se construyen las canciones de la nación imaginada” izenburuko lana aurkezten du. Bereziki XIX. mendearen erditik XX.aren lehen herenera bitartean Katalunian bilduriko kantutegietan oinarriturik, artikulua egileak oharrarazten du zenbait kanta falta direla eta beste batzuk mozturik daudela, gizarte maila jakin baten asmo eta xedeen arabera, bizitza egokitu zitzaion une historiko desberdinetan; nolana ere, Europakoa bezain geografia eremu zabalean kokatzen direnak.

Hautazko termino horiek, aldeak alde, parte hartzen dute Karlos Sanchez Ekizaren “Músicas populares, tradicionales y folklóricas en la sociedad vasca contemporánea” artikuluan, non begiratzearen baldintzak eta ikertzaileek eta jotzaileek baliaturiko semantika eta erabilpen atal desberdinak erakusten diren, bertan R. M.<sup>a</sup> de Azkue eta Aita Donostiaren izenak falta ezin direlarik.

Denis Laborde, bere aldetik, hainbat arrazoirengatik ezin etorri zenak “La mémoire, l’archive et le chant basque” artikulua bidali digu. Hala J. I. Iztuetaren

nola Fortoul galdeketaren (XIX. mendearen erdikoa) doinu eta abestiek funts bat sortzen lagundu dute, eta horretan oinarriturik era askotako talde eta elkarteak agertu eta agertzen dira. Hala, alde batetik Oldarra kantu eta dantza elkarteak eta haren ikuskizunak ditugu, edo Oskorri folk taldea. Bi adibideak baliozkoak dira egilearentzat, bi-biak agertokira aldaturiko ordezte musikalaren adierazle leialak baitira.

Beste parte hartzaile bat ere, Ana María Ochoa, ez zen fisikoki bertaratu, baina bidokonferentziaz konektatu zen New Yorketik. Txostenetik datorren testua, “Arqueología del saber, prácticas de circulación y folklore”, ale honetan ageri da eta Akten osagaitzat hartu daiteke. Artikuluan, egileak Kolonbia bere sorterriaren eta gertuko beste herrialde batzuen geografia eremura mugatzen da. Alexander von Humboldt eta Charles Darwin bezalako naturalisten iruzkin eraberrituetan bermatzen da, baita joan-etorriko ataletako bakoitza markatzen duen parametroetan, ahozko komunikazioaren eta musika hizkuntzaren alorrean.

Eta amaitzeko, Auritz Aurtenetxe komunikaziogilearen “*Ez dok amairu* tradizioa eta modernitatea, nortasun bila” lana. *Ez dok amairu*, “euskal kanta berria” deiturikoaren barnean kokaturiko musika talde ezagunak ondu zuen tradizioaren eta gaurkotasunaren arteko erreperitorioaren historia sekuentzialaz dihardu lan honek.

Espero dugu Joxemiel Bidadorren omenez eta esker onez haren bizitza labor baina egitekotsuan egindako lanagatik argitaratzen dugun *Jentilbaratz*. *Cuadernos de Folklore* agerkariaren ale berri honek, etengabe mugitzen garen alor hauetan ekarpen txikia izanik ere, balio izatea beste urrats bat egiteko kulturei buruzko ikasketen historian, eta ez bakarrik euskal kulturari buruzkoan. Hartarako, Erredakzio Batzordetik dei egiten diegu ikertzaile guztiei Folklorea hornitzen duten alorretan –Ahozko Literatura, Joko eta Kirolak, Herri Sendagintza, Dantzak, Musika...– edo argudio diziplinetan –Mitologia, Ahozko Tradizioa, Gizarte Historia, gizarte, kultura... mailetan sorturiko aldaketak eta prozesuak, etab.– buruturik edo burutzeoak dituzten lanak argitara eman ditzaten.

Emilio Xabier Dueñas  
*Folklore Saileko Lehendakaria*



## Presentación

---

Crisis y más crisis. La prensa escrita, las cadenas de televisión, la gente por la calle y en casa habla de lo mismo, en general y desde el año 2009: la situación económica, el descenso de la productividad laboral y por consiguiente la subida del paro... Sin duda alguna, se trata de un gran inconveniente que se viene arrastrando desde tiempo atrás y no parece, según algunos seres vivos y videntes, que se resuelva a corto plazo.

La Cultura, como no podía ser de otra forma, se encuentra sacudida por esta situación. Hay que tener en cuenta que se le suele llamar el hermano pobre a la hora de los presupuestos: subvenciones, ayudas económicas de diversa índole o simplemente apuesta por proyectos necesarios de cara a la sociedad. Si, además, la cultura popular es un apartado marginal dentro del gran abanico que aglutina y, también, las tradiciones son el punto final del recorrido, nos encontraremos con que intentar trabajar en estos términos se hace más que complicado, casi imposible: nos movemos en el campo de la investigación, de los estudios analíticos, de una labor fundamental y apoyo al mundo del Folclore (disciplina de estudio y materialización del conjunto de las tradiciones).

Pero... con toda la intención de dejar a un lado situaciones complicadas, al menos hasta donde sea posible, la Sección de Folclore continúa, no sin dificultades, impulsando las diversas temáticas que nos atañen, que son muchas. Favorecer y enaltecer todos los trabajos a realizar y, por supuesto, generar rigurosidad en las actividades concertadas.

Gracias a las Jornadas realizadas por la Sección, en las que son invitados diferentes entendidos en las materias correspondientes, a los materiales presentados por los mismos, así como a la labor desinteresada de otras personas, podemos ofrecer este nuevo número de *Jentilbaratz. Cuadernos de Folclore*.

En este caso, se ha dividido el ejemplar en dos bloques, comenzando el guión por los trabajos recibidos a título personal y por encargo. Así tenemos en el apartado "Trabajos de investigación", el artículo de un conocido colaborador como es Mikel Aranburu. En "El txistu vasco, testimonio de ingenio", se desgranar abreviadamente algunos de los momentos de la utilización del instrumento en nuestra geografía. Su historia, las diferentes agrupaciones, la evolución de su sonido, o algunos de sus más ilustres representantes, conforman este breve, pero intenso recorrido, a través de sus páginas.

A continuación, el antropólogo Kepa Fernández de Larrinoa nos presenta "Razón y crítica del concepto 'patrimonio cultural'". Dar significado y sentido a

todo elemento del Patrimonio (Cultural Material, Cultural Inmaterial o Natural), nos sitúa, aunque esquemáticamente, en un lugar en el que podamos divisar todo elemento que deba ser considerado y protegido por la comunidad que lo sustenta y defiende.

Patrimonio que, en lo relativo a la danza, ha tenido un apoyo intenso en el corto espacio de existencia de nuestro desaparecido Joxemiel Bidador. Práctica en lo que respecta a su faceta de *dantzari*-danzante, teoría en lo relativo a sus trabajos de entre los que destaca su *Dantzaren erreforma Euskal Herrian*.

Antes del fallecimiento, el cual nos pilló totalmente desprevenidos a todos, elaboró un artículo, "Cuestiones infantiles por Todos los Santos en la cuenca de Pamplona: Los Txinurris", en el que se enumeran las representaciones, desconocidas a todas luces, en unas fechas otoñales y que, por negativa coincidencia con su devenir, se han realizado de forma masiva hasta hace cercanas fechas.

El último artículo, "Precedente histórico-trágico del lanzamiento de palanca en el Valle Medio del Nervión", del lingüista Ander Ros, nos retrotrae en el tiempo a los albores de un deporte un tanto desconocido por haber servido de instrumento, incluso internacionalmente, en un momento muy determinado de nuestra historia en el siglo XX.

El segundo apartado nos traslada a la Jornada "Musika Folk, musika tradizionala eta folklorea-Música folk, música tradicional y folclore" realizada en Basauri el 25 de abril de 2009. En la misma, a lo largo de la mañana y parte de la tarde, pudimos escuchar las aportaciones de diferentes estudiosos y estudiosas del mundo musical.

Además de las ponencias y comunicaciones presentadas, tuvimos la oportunidad de reunir en una mesa redonda, que giró alrededor de la convergencia y divergencia de la música, a nivel de uso con finalidades dispares, a algunos personajes con diferentes puntos de vista de la música tradicional, popular y folk: José Ignazio Ansorena, Juan Mari Beltrán, Gontzal Mendibil, Aingeru Berguices, Iñigo Aguerri (Miel Otxin Folk Taldea) y Xabier Valle. Con visiones claramente al margen de la polémica, los contertulios se expresaron en un lenguaje sencillo y, brevemente, marcaron las pautas y finalidades en su quehacer diario.

Los artículos recibidos de las ponencias se circunscriben a apartados tan diversos como coincidentes. Así tenemos el trabajo de Jaume Ayats, titulado "Las canciones 'olvidadas' en los cancioneros de Catalunya: cómo se construyen las canciones de la nación imaginada", en el cual su autor esgrime, a partir de los cancioneros elaborados, principalmente entre mediados del siglo XIX y el primer tercio del XX, en Cataluña, la falta de ciertas canciones, o recortes en algunas de ellas, la intencionalidad y propósitos de una capa social en diferentes momentos históricos que tocó por vivir; no obstante circunscritas a un ámbito geográfico tan extenso como el europeo.

Términos facultativos que, salvando las distancias, intervienen en el artículo de Karlos Sánchez Ekiza, “Músicas populares, tradicionales y folklóricas en la sociedad vasca contemporánea”, donde se muestran los condicionantes de preservación y los diferentes apartados semánticos y de uso utilizados por investigadores y ejecutantes y, donde los nombres de R. M.<sup>a</sup> de Azkue y P. Donostia no pueden faltar.

Por su parte, Denis Laborde, el cual por diferentes motivos no pudo asistir, nos ha enviado “La mémoire, l’archive et le chant basque”. La procedencia de melodías y canciones, tanto de J. I. Iztueta, como del cuestionario Fortoul (mediados del siglo XIX), han contribuido a crear un poso sobre el que se han cimentado, y cimentan, colectivos y grupos de diversa índole. Así tenemos, por un lado, la Asociación de canto y danza Oldarra con sus espectáculos, o el conjunto folk Oskorri. Ambos ejemplos son válidos para su autor, como fieles exponentes del relevo musical trasvasado al escenario.

Otra participante, Ana María Ochoa, tampoco acudió en persona, pero sí se realizó por video-conferencia una conexión con Nueva York. El texto, procedente de la ponencia, y cual parte de las Actas pueda ser considerado, “Arqueología del saber, prácticas de circulación y folklore”, se adjunta en este número. En el mismo, la autora, se ciñe al marco geográfico de su país natal, Colombia, así como otros cercanos. Se apoya en comentarios refundidos de naturalistas como Alexander von Humboldt y Charles Darwin, así como los parámetros que marcan cada uno de los apartados de ida y vuelta en la comunicación oral y el lenguaje musical.

Y finalizamos con “*Ez dok amairu tradizioa eta modernitatea, nortasun bila*”, de la comunicante Auritz Aurtenetxe, acerca de la historia secuencial entre tradición y actualidad del repertorio del conocido conjunto musical, incluido en el panorama de lo que fue denominado como la “nueva canción vasca”: *Ez dok amairu*.

Esperamos que este nuevo número de *Jentilbaratz. Cuadernos de Folklore*, en homenaje y agradecimiento por la labor realizada durante su corta pero intensa existencia a Joxemiel Bidador, aunque de pequeña aportación en cualquiera de los ámbitos en los que nos movemos continuamente, sirva para dar otro paso más en la historia de los estudios relativos a las culturas, no solo la vasca. Para ello, lanzamos, desde el Consejo de Redacción, una llamada a todos y todas los/las investigadores/investigadoras que tengan trabajos realizados, o por realizar, que cubran los diversos campos de los que se surte el Folclore para publicarlos: la Literatura Oral, los Juegos y Deportes, la Medicina Popular, las Danzas, la Música...; o las disciplinas de argumentación: la Mitología, la Tradición Oral, la Historia Social, los cambios y procesos surgidos a nivel social y cultural, etc.

Emilio Xabier Dueñas  
*Presidente de la Sección de Folklore*